



06 AZAROA

Asteazkena
01

Osteguna
02

Ostirala
03

Larunbata
04

Igandea
05

Astelehena
06

Asteartea
07

Asteazkena
08

Osteguna
09

Ostirala
10

Larunbata
11

Igandea
12

Astelehena
13

Asteartea
14

Asteazkena
15

Osteguna
16

Ostirala
17

Osteguna
30

Asteazkena
29

Asteartea
28

Astelehena
27

Igandea
26

Larunbata
25

Ostirala
24

Osteguna
23

Asteazkena
22

Asteartea
21

Astelehena
20

Igandea
19

Larunbata
18



ELEBIDE, HIZKUNTZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZERBITZUA

Euskal gizartea elebiduna da. Bi hizkuntza ofizialetan mintzatzeko ahalmena dauka eta eskatzen du gure gizarteak. Gure lantokian, dendetan, osasun zentroetan, hedabideetan, unibertsitatean... Baita udaletxean edota epaitegi batean ere. Bai euskara bai gaztelania komunikazio tresna dira gure eguneroko bizitzan. Eta gure gizarte elebidun honek komunikatzeko bi hizkuntzetatik edozein aukeratzeko eskubidea behar du, gure herrietako edozein lekutan edota egoeratan. Hizkuntzen berdintasun soziala lortzea da gure erronka, hau da, zer hizkuntzatan harremanak izan nahi ditugun benetan aukeratu ahal izatea.

Egoera hori ez da beti betetzen, ordea, baliteke administrazioaren edo enpresen leihatilaren beste aldean euskaraz ulertzeko edo erantzuteko gai ez den langile bat aurkitzea edo gerta liteke hamaika egoeratan euskaraz aritzeko zailtasunak topatzea.

Egoera hauei aurre egiteko, euskal gizarteak erakunde publikoen babesa jasotzea ezinbestekoa da, hizkuntzaren normalizazioaren bidean ardura handia dutelako. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako

Sailburuordetzak beharrezkotzat jotzen du **Elebide** zerbitzua sortzea. Gizartearen beharrei erantzutera dator **Elebide**, Euskal Autonomia Erkidegoan benetako elebitasuna lortzeko bideak jartzeko helburuarekin. Modu honetan soilik berma daitekeelako euskal herritar guztiek nahi duten hizkuntzan bizitzeko aukera izatea.

Izan ere, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukera eskaintzeko eta herritarren hizkuntz eskubideak babesteko eratu da zerbitzua.

Zer eskaintzen du Elebidek?

Eskaera edo kezen kudeaketa:

Zure Hizkuntz Eskubideak urratuak izan baldin badira, jarri Elebidearekin harremanetan. Kasua aztertu ostean, prozesua martxan jarri eta jarraipen estua egingo diote, dagokion entitateak egoera konpon dezan.

Informazioa eta aholkularitza:

Zure Hizkuntz Eskubideen inguruan, indarrean dagoen araudia dela eta, edo antzeko gaien gainean zalantzarik baldin baduzu, baliabideen gaineko informazioa eta aholkularitza eskainiko dizu Elebidek.

Behar eta eskatzen dutenei laguntza:

Kexak eragiten dituzten entitate guztien esku jartzen gara, laguntza eskaini, eta Hizkuntz Eskubideak bermatu daitezkeen lortzeko.


Koordinazioa elkarteekin eta erakundeekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak babesteko, eta indarrean dagoen araudia bete dadin, elkarlanean jardungo dugu Herri Administrazioetako organoekin.

Proposamen eta iradokizunak:

Hizkuntz Eskubideen babesarekin zerikusirik izan dezaketen proposamen eta iradokizun guztiak onartuko dira.

Helburua, beraz, bikoitza da: herritarrei babesa ematea eta hizkuntz eskubideak betetzen ez dituzten erakunde, enpresa eta zerbitzuetako arduradunei egoera horren berri eman eta hori gainditzeko laguntza eskaintzea, askotan hala ari direnik jakin ere ez baitakite. Euskal herritarri komunikazio eremuan euskaraz edota gaztelaniaz bizitzeko aukera eman behar zaio.



ELEBIDE Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari legez dagokion ondorengo eginbeharra betetzera dator:

"Eskatzen duten herritarrei, beren hizkuntz eskubideak babesteko informazioa eta aholkularitza ematea, eta eragindako erakundeei eskubide horiek benetan bete daitezkeen elkarlana eskaintzea"

01 EUSKAL HIZTUNEN ESKUBIDEAK

Elebide izenak elea aipatzen du alde batetik, hitza, hizkuntza alegia. Bestaldetik, elebitasunaren balioa ere badu, elebitasunari egiten dio erreferentzia. Azkenik, bide hitza du bere baitan, herritarren kezak, kontsultak eta iradokizunak bideratuko baititu zerbitzu berriak. **Elebide** izenak elebitasunerako bidea iradokitzen du, hizkuntzaren normalizaziorako bidea.

Arlo publikoan eta pribatuan euskaraz eta gaztelaniaz komunikatu ahal izateak behar bezainbesteko bermerik ez duenez gero, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu berria sortu du, Euskadiko hiztunen hizkuntz eskubideak babesteko.

Herritarren eskaerei arreta eskaini, eta haien erantzun egokia emateko sortu du HPSk **Elebide**. Horretarako, entitatearen batek bere betebeharrak bete ez baditu informazioa eta aholkua eskainiko dizkiote zerbitzu honen bidez, EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilera behar bezala zaindu dezan.

Elebide Hizkuntz eskubideak bermatzeko Zerbitzuaren helburua ez da zigortzea, hizkuntz eskubideak bete edo bermatu ez dituen erakunde publikoari edo enpresa pribatuko arduradunari horren berri ematea baizik. Kasu askotan arduradunek ez baitute jakingo halakorik egiten ari direnik edo ez dutelako jakingo nola konpondu. Beraz, eskubide horien berri emango zaie, eta, informazioarekin batera, prestakuntza eta laguntza ere eskainiko zaizkie.

Enpresek eta herri administrazioek beraien zerbitzua bi hizkuntzetan ematen badute, zerbitzu hori erakargarriagoa eta kalitate handiagokoa izango dela jabetzen ari dira oraindik.

Elebide, edozein egoeratan Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan harremanak eduki ahal izatea eskaintzen duen zerbitzua, **Hizkuntza Politika aurrera begira** Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratutako liburuan, "Jardunbide Nagusiak" izendatutako atalburuan biltzen da, 2005-2009 urteetarako egitasmoak jasotzen diren atalean.

02 ZERBITZUA MARTXAN

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik urriaren 17an aurkeztutako zerbitzu honek telefono zenbakia, web orria eta posta helbidea ditu, hizkuntz eskubideak bermatzen ez direnean, Eusko Jaurlaritzaren babesa jaso eta kasuan kasu konponbidea emateko •

- Elebideren telefono zenbakia:** 012 izango da.
- Web orria:** <http://www.euskadi.net/elebide>
- Posta helbidea, hauxe:** elebide@ej-gv.es

euskararen Berripapera

ELKARRIZKETA 3

Berripapera, itxuraz eta edukiz berritua

Igone Etxebarria Euskara Sustatzeko zuzendaria

174. zenbakira iritsi da Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzaren Berripapera. Itxuraz eta edukiz berritua dator. Bide berri baten ataria da?

Bai, halaxe izatea nahi dugu. Gure Berripapera aintzindaria izan da era honetako argitalpenetan. Gaur egun erakunde, elkarte eta beste era bateko entitateek ere askok kaleratzen dute halakorik. Dena den, sortu zenetik hona, komunikazioa bideratzeko bitartekoetan aldaketa handiak egin dira (hedabideak ugaritu, berriak internet bidez zabaldu...) eta orain berriak berehala iristen zaizkio kontsumitzaileari. Guk ere egunerokoetan iragartzen ditugu gure ekimena eta egindako lanak. Horregatik, Berripapera-k bere lekua egokitu egin behar du eszenario berri horretan. Hilean behin argitaratzen denez, gauzak igaro ondoren, beste patxada batekin aztertuta eman behar ditu. Itxura aldetik aldaketa nabarmena da, irudi ikusgarria, koloretsua, bizia eta atsegina eman nahi izan diogu.

Eduki aldetik ere aldatu egin da, zer helbururekin kaleratuko da hemendik aurrera?

Lehen esandakoaren ondorioz, gaur egun euskalgintzako berriak zabaltzeko bide asko eta berehalakoak daude, eta guk geure ekintzen berri eman behar dugu batez ere, baina eguneroko hedabideetan agertzen diren berriei balio erantsia ezarrita, gaiak sakonago eta zabalago azalduta. Hala ere, euskalgintzan diharduten gainerako agenteek lekua izango dute gure berrietan ezinbestean, programak elkarrekin bete behar baititugu. Denok gara euskalgintza eta denon ekintzen berri egongo da Berripaperan.

Zeintzuk dira HPSren erronka nagusiak hemendik aurrera?

Legealdi honetarako asmoak Hizkuntza Politika aurrera begira, HPSren 2005-2009 egitasmoa argitalpenean jakinarazi genituen. Horietatik asko bete dira edo bidean dira, esaterako, **LanHitz** euskara lan munduan indartzeko eta bultzateko plana eta **Elebide**, hizkuntzari lotutako eskubideak bermatzeko zebitzua.

Aurrera begira, lehengoei indarra emateaz gainera, hainbat zeregin berri daukagu egiteko. Esandako argitalpen hori aurkeztu genuenean, euskararen gaineko debate zabala egin nahi dugula aurreratu genuen, eta horri heldu behar diogu hemendik aurrera buru-belarri. Euskararen Legea onartu zenetik jorratu den ibilbidearen balorazioa egin eta aurrera begira ezarri beharreko erronkak finkatzeko agente mota guztiekin eta modu irekian eztabaidatu nahi dugu.

Etxepare Institutua eratuko da datorren urtean, Legebiltzarrean horretarako pausoak urratzen direnean. Horrek ekarriko du euskara eta euskal kultura kanpoan zabaltzeko sarea osatzea, gaur egun dagoena baino formalagoa, eta euskara mundu osora zabaltzea.



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística